

Malen Bolinaga Olano

B maila • 1 saria

Nire izena Malen Bolinaga Olano da. 2006ko uztailaren 13an jaio nintzen, Beasain da nire jaiotokia. Beasaingo La Salle ikastetxeko ikasle bat naiz, DBH4. mailakoa. Txikitatik musika eskolara joan izan naiz eta bertan instrumentu bat jotzen ikasi dut. Aurtengo idazleihaketan nire lehen saria lortu dut. Nire ipuina gustukoa izatea espero dut.



JOSU ETA MARIA

Beroa daukat, jende gehiegi dago diskoteka barruan eta mareatzen hasita nago, komunera noa. Komunean sartu naiz. Beti bezala zerri eginda dago, neskena nola egongo den pentsatzen dut, mutilona baino garbiagoa ziurrenik, garbiagoak dira eta. Pixa egin eta kanpora atera naiz aire pixka bat hartzera, zigarroa erretzen ari naiz nire bizitza nola doan pentsatzen dudana bitartean. Hemen nago, 30 urterekin, langabezian, neskari gabe eta nire aurrezkiak alkoholaren eta emagalduetan gastatzen.

Nire zoritxarrak alde batera uztea erabaki dut. Etxera joango naiz, bai horixe! Hori pentsatu orduko iritzi aldatu dut, beno, hobeto esanda, neska batek iritzia aldarazi dit. Oso polita da, ile marroia dauka eta ezti koloreko begi argiak ditu. Soineko pegatu eta motx batek bere gorputzaren forma perfektua marrazten du, soineko horrekin, ezin izan dut txistu bat saihestu. Begirada goxo bat itzuli dit, bere begiek desira islatzen dute, eta sartu egin da. Bere atzetik noa, horrelako aukera ezin dut alde batera utzi eta. Iluntasunean sartu bezain laster, nire lagunak ikusi ditut, baina ez diet kasu handirik egin, nire gorputza bere kasa doa neska horren atzetik. Hor dago, izkina batean. Mutil batekin hitz egiten ari da. Mutil gaztea da, 15 bat urtekoa, zergatik ari da berarekin hizketan, sartu aurretik hain goxo begiratu banau? Bereganako joango naiz.

Gerturatzen ari naiz, baina ez nau ikusi. Geroz eta gertuago nago, baina oraindik ez da konturatu. Bere bihotz taupadak entzun ditzaket, eta ez nau begiratzen. Hemen nago, ez du ezer esaten, biak isil-isilik daude. Dj-ak "Vaina loca" abestia jarri du, ez zait asko gustatzen, baina dantzatzeko hasten naiz isilune hau mozteko. Neskak barre egiten dit eta mutila joan egin da, guri lasai hitz egiten uzteko. Izena galdetu diot neska puska honi, Maria du izena. 15 urte ditu, gazte samarra da, baina ez dit errefus egiten. Nahiko lotsatia dela dirudi eta txupito bat eskaini diot. Dantza egiten ari gara, baina ez nago eroso, berriz mareatzen ari naiz, soinu gehiegi dago, bera ere mareatuta dagoela iruditzen zait. Kanpora joateko esan diot eta ez du ezer esan. Baiezkoa izango da; kanpora goaz.

Larunbata da eta lagunekin atera naiz. 22:00etan diskoteka kanpoan geratu gara, itxaroten ari naiz. Inguruan jende nahiko zaharra dago, ni baino 15 urte edo gehiago duen jendea. Nire lehenengo aldia da diskoteka batean, ez zait asko gustatzen, baina nire adineko jendeak horrelako gauzak egiten ditu eta lagunak ere animatu egin gara. Gainera, nire bikotea ere etorri da, Mikel. Berarekin hitz egin beharra daukat. Beste neskekin ibili dela badakit. Berarekin moztu nahi dut, moztu behar dut.

22:15 dira eta hotza egiten du, oso arropa gutxi jantzi dut. Ez nago batere eroso soineko motz eta pegatu honekin. Etxera joan nahi dut. Ohean sartu. Telebista ikusi. Baina ezin dut, jada nire lagunak hemen daude. Denok elkartu gara eta barrura sartu gara. Ate ondoan mutil batek begiratu eta txistu egin dit. Zegatik egiten dute mutil guztiek gauza bera? Zegatik dira horrelakoak? Zegatik hain azpisugeak? Mikel barne. Oraingoan ez naiz ezer gertatuko ez balitz bezala geratuko. Ez naiz ikusmiran geldituko. Desatsegina da eta ez daukat horrelakorik jasan beharrik. Nazka aurpegiarekin begiratu diot. Barruan gaude, dantzan, lagunekin. Mikel gerturatu zait. Ez dut lehen bezala ikusten. Aurpegia aldatu zaio. Bera ikusteko modua aldatu dut. Ergel honek ez daki guztia dakidala. Izkin batera joan gara biok bakarrik hitz egitera. Dena kontatu diot, aho zabalik geratu da. Ezer esan gabe. Haserre dago, ez dakit zergatik. Bere atzetik mutil bat gerturatzen ikusten dut, txistu egin didan bera da. Ez diot kasurik egin. Guregana etorri da.

Ez dut ezagutzen, ez dakit zein den, bakarrik txistu egin didala dakit. Ez dut nahi bera hemen egotea, Mikelekin gauzak argitu nahi ditut. Ez dugu ezer esaten, ez mutiko arraro honen aurrean. Dantzan hasi da, edanda dago. Mikel, haserre eta jeloskor bere lagunengana joan da. Bakarrik utzi nau gizon honekin. Bere izena esan dit, Josu, 22 urte dituela dio. Badakit gezurra dela. Ez diot ezer esan, nire lagunena joan nahi dut, baina galdu egin ditut. Txupito batera gonbidatu nau. Zerbait bota dio nireari, ikusi egin dut. Berak berea edan duen bitartean, nik nirea lurrera bota dut. Lagunak ikusi ditut, baina bera gaizki dago eta kanpora joateko eskatu dit. Lagundu egiten diot.

Paseo bat ematen ari gara, isilik, baina gustura. Estropozu egiten du, ezin da zutik mantendu. Segituan belaunean zauri bat duela konturatzen da. Zaurian putz egin diot, mina lasaitzeko, eta mukizapi batekin pixka bat garbitu dut, ez du ezer gehiago behar. Belauna garbitu ondoren musu txiki bat eman diot belaunean, hobeto sentitzeko. Segituan kendu du, eta masailak gorritu zaizkio, argi dago gustuko nauela. Ez gara asko hitz egiten ari, ez dago zertan. Beregana gerturatzen naiz, berak ez du atzera egiten. Ilea laztantzen diot, ez da kexatzen, eta musu bat ematea erabakitzen dut, baina gerturatzen noan heinean bere lagun bat ikusi du. Bere izena oihukatu du. Ez dio entzun. Korrika txikian beregana gerturatzen da. Hitz egiten ari dira eta niri begiratzen didate. Maria gerturatzen ari da niregana, beste musu bat nahiko du. Baina bere lagunekin doala esan dit, joan egin da.

Besoa heldu dit, beldurra daukat. Ibiltzen hasi da, geroz eta jende gutxiago dago. Ez dut aurrera egin nahi. Lurrera bota naiz, edanda nagoen itxura egiten ari naiz. Mina egin dut, odol tantak daude nire arropan eta lurrean, baina ez zaio inporta. Putz egiten hasi da, zertan ari da? Muxu bat eman dit zaurian, botagura eman dit. Joateko asmoa erakutsi diot, "hobeto da nire lagunena joatea", "ez naiz oso ondo sentitzen", baina ez dit kasurik egiten. Niregana gerturatu da, ez naiz mugitu. Ezin naiz mugitu. Urduri nago eta ez dakit zer egin, joaten ahalegintzen banaiz, joko nauen beldurra daukat, etxera joan nahi dut.

Musu bat eman dit ezpainenetan, negargura daukat. Bi neska gure ondotik pasatzen ari dira. Ez ditut ezagutzen, baina laguntza eskatu nahi dut. "Intza!" Oihukatu dut, ez dit kasurik egin, ez da bere izena. Neskarengana gerturatu naiz, nire laguna izango balitz bezala. Laguntza eskatu diot. Mutil ezezagun batekin nagoela esan diot. Berarekin ez dudala egon nahi esan diot. Baiezkoa egin dit buruarekin, lagunduko didala. Josurengana joan naiz, agurtzeko asmoarekin. Beste musu bat eman nahi dit, baina oraingoan apartatu egin naiz. "Banoa" esan diot. Neska haiekin aldendu naiz.